



## LANKIDETZA HITZARMENA, ARABAKO ABOKATUEN ELKARGOAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO HERRITARREN DEFENDATZAILE EDO SINDIKOAREN ARTEAN

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 11an

### BILDURIK:

Alde batetik, Javier Martínez de San Vicente Corres jauna, Arabako Abokatuen Elkargoko dekanoa, eta bestetik Javier Otaola Bajeneta jauna, Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaile edo Sindikoa.

Ordezkatzen dituzten erakundeen arautegien araberako aginpideak baliaturik dihardute alde biak.

### ATARIKOA:

Askatasun demokratikoak berreskuratu zirenetik, Vitoria-Gasteizko Udalak berebiziko garrantzia eman dio tokiko boterearen esangura politiko eta sozialari, herritarren zerbitzurako bideratutako herritarren boterea den aldetik, herritarren eguneroko bizitzarekiko duen hurbiltasunagatik, eta elkarbizitza kohesionatzeko duen indarraren aldetik; izan ere, gure hiriaren identitate-ikur bihurtu da. Vitoria-Gasteizko Udala promulgatu zen une berean atxiki zitzaion **Hirian Giza Eskubideak Babesteko Gutunaren XXVII. artikulua** GIZA ESKUBIDEen sustapena burutzea udal-eskumen guzti-guztien berezko zeregina dela dio (esan ere, espresuki eta batere itzulingururik gabe dio), baita eskumen ustez apalenen bidez ere.

Vitoria-Gasteizko Udalak badu berezko tradizio historikoa, hirian sustrai sendoak dituen figura sentitu batekin, *Prokuradore Sindiko Nagusiarekin*, abiatzen dena. Figura



horren sorrera XV. mende ingurukoa da; testuinguru politiko eta legala oso bestelakoa izanagatik, garai hartan *petxeroen herri eskubideak* defendatu eta babesteko xede berbera zuen atzean.

Nahiz eta profil instituzional aldakorrarekin, figura horrek eta bere izenak bizirik iraun dute gure hirian. Funtzio desberdinak bete ditu, baina bat nagusitu da: hiriaren eta Kabildoaren arteko bitartekaritza, arlo zibilean zein kriminalean hiriak izandako auzi guztietan hiriaren defendatzailea baitzen.

Egungo demokrazia modernoak bestelako oinarriak eta bermeak dituen arren, zuzenbide konparatuak erakusten digu, (Suedian Ombudsman-aren figura sortu zenetik) **TOKIKO SINDIKO**Aren erakundea baliagarria dela tokiko Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak hobetzen laguntzeko, Giza Eskubideen tokiko berme gisa.

Bestalde, **Arabako Abokatuen Elkargoak**, herritarren eta, oro har, gizartearen eskubideak babesteko legelarien ordezkari den aldetik, berebiziko lotura estua dauka Herritarren Eskubide guzti-guztiak sustatzeko eta babesteko zereginarekin.

**1948ko abenduaren 10ean**, Nazio Batuen Batzar Orokorrak *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala* aldarrikatu zuen. Aurten aldarrikapen horren 60. urteurrena ospatuko dugu, zeina mundu zabaleko herri eta nazioen ahalegin komuna izan behar duen, pertsona eta erakundeek, hezkuntza eta irakaskuntzaren bitartez (eta goi-asmo hori beti gogoan), bertan jasotako eskubide eta askatasunen errespetua suspertu, eta aintzat hartuko direla eta benetan eta izaera unibertsalarekin aplikatu direla berma dezaten.

Hitzarmen honen bidez bi erakundeen arteko lankidetzaz-ildoak uztartu nahi ditugu, Gasteizko herritarren eskubideen onerako. Horrenbestez, alde biek ondoko lankidetzaz-jarraibideak zehaztea erabaki dute.



### **LEHENA:**

Arabako Abokatuen Elkargoak eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak elkarrekin lankidetzan aritzeko eta elkarri laguntzeko nahia azaldu dute, beren zereginak modurik eraginkorrenean betetzeko. Horretarako, agintzen dute, hitzarmen honen esparruan, hiritarren eskubideen babesa hobetzeko egokienak diren eta eskura dituzten teknikak eta bitartekoak sustatuko dituztela.

### **BIGARRENA:**

Arabako Abokatuen Elkargoak eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak harreman estua izango dute, dagozkien eskumenez baliatuta, Herritarren Eskubideak modu eraginkorrean babesten direla ziurtatzeko. Harreman horietan honako printzipio orokor hauek izango dira nagusi: lankidetzak, laguntza, koordinazioa, baliabide publikoen erabilera eraginkorra eta leialtasun instituzionala.

### **HIRUGARRENA:**

Arabako Abokatuen Elkargoaren eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren arteko harremanek horietako bakoitzaren independentziarekiko errespetua eta eman zaizkien eginkizunen betearazpena dituzte oinarri.

### **LAUGARRENA:**

Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak hitzematzen du Arabako Abokatuen Elkargoari, aldian behin, Erakunde honek babesten dituen Giza Eskubideak urratzeagatik jasotzen dituen kexa edo erreklamazioen berri emango diola eta, Udalarari kexa horiei buruz egiten zaizkion gomendioez informatuko duela.

### **BOSGARRENA:**

Arabako Abokatuen Elkargoak eta Vitoria-Gasteizko Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak honakoak egiteko konpromisoa hartzen dute:



1. Hainbat arlotan lankidetzan aritzeko, besteak beste, prestakuntzan, aholkularitzan, eta erakunde bientzako interesgarri gerta litezkeen txosten eta argitalpenen trukaketan.
2. Práxedes Ochoa Epai Praktika Eskolako ikasleen trebakuntzarako lankidetzan.
3. Elkarri laguntzeko, Giza Eskubideen Adierazpenaren aldarrikapena ezagutaraztera, zabaltzera eta ospatzera zuzendutako jardueren antolaketan.

Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta halaxe jarraituko du, alderdietakoren batek honen amaiera berariaz iragarri ezean, gutxienez hogeita hamar egun lehenago.

ARABAKO ABOKATUEN  
ELKARGOKO DEKANOA

Javier Martínez de San Vicente Corres jauna

VITORIA-GASTEIZKO  
HERRITARREN  
DEFENDATZAILE edo  
SINDIKOA

Javier Otaola Bajeneta jauna